

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO KUADRILLA

Lizitazioa, Zuiako Kuadrillako Aramaio, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udaletako agiritegi zerbitzuen kontratua esleitzeko

Lehendakariaren 2014ko abuztuaren 29ko ebazpen bidez, kontratazio espediente hau onartu zen:

1. Erakunde esleitzaila: Zuiako Kuadrilla.
2. Kontratuaren xedea.
 - a) Xedearen azalpena: Aramaio, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalen administrazio agiriak artxibatzeke zerbitzuak.
 - b) Kontratu mota: zerbitzuak.
 - c) CPV kodea: 79560000-7
 - d) Aldaeren onarpena: ez dagokio.
3. Izapidetzea eta esleipen prozedura.
 - a) Izapidetzea: arrunta.
 - b) Prozedura: irekia.
4. Kontratuaren iraupena eta lizitazio oinarria:
 - a) Kontratuaren iraupena: 2 urte.
 - b) Luzapena: bai, gehienez bi urte.
 - c) Kontratuak iraungo duen bi urteetarako aurrekontua (BEZa aparte): 72.000 euro.
5. Lege, ekonomia eta finantza informazioa eta informazio teknikoa:
 - a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.
 - b) Behin betiko bermea: kontratuaren esleipen zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte).
 - c) Berme osagarria: ez da eskatzen.
 - d) Ordaintzeko modua: ikus administrazio baldintzen agiria.
 - e) Esleipen irizpideak: administrazio klausulen agirian jasotakoak.
 - f) Sailkapena: ez da eskatzen.
 - g) Gaitasun teknikoa: ikus administrazio baldintzen agiria.
 - h) Ekonomia kaudimena: ikus administrazio baldintzen agiria.
6. Agiriak eskuratzea.
 - a) Lekua: Zuiako Udalaren egoitza (Udaletxeko plaza, 1, 2. ezk., 01130 Murgia; telefonoa: 945-430167; faxa: 945-462608), astelehenetik ostiralera, 08: 00etatik 15: 00etara, edo Zuiako Kuadrillaren kontratatzailearen profilean (sarbidea: www.cuadrillazuia.com).

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken eguna, jendea atenditzeko ordutegian, 08: 00etatik 15: 00etara.

7. Eskaintzak aurkeztea.

a) Eskaintzak aurkezteko epea: 15 egun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epearen azken eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

b) Eskaintzak aurkezteko lekua: eskaintzak Zuiako Kuadrillaren erregistro orokorrean (Udaletxeko plaza, 1, 2. ezk., Murgia, Araba) aurkeztuko dira, edo bestela 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenaren, 38.4 artikuluan adierazitako erregistroetako edozeinetan.

c) Ordutegia: 08: 00etatik 15: 00etara, astelehenetik ostiralera.

d) Postaz igortzea: Herri administrazioen kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 80.4 artikuluan ezarritako baldintzak beteta, bai eta SPKLTBren xedapen gehigarrian ezarritakoa ere.

e) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: ikus administrazio baldintzen agiria.

f) Lizitatzailleak eskaintzari eutsi beharko dion epea: 3 hilabete.

8. Eskaintzak irekitzea: Zuiako Kuadrillaren egoitzako bilera gelan egingo den ekitaldi publikoan. Ekitaldiaren eguna kontratatzailearen profilean jakinaraziko da, eta lizitatzailleei haren berri emango zaie gutxienez bi egun lehenago.

9. Iragarki gastuak: kontratistak ordainduko ditu.

Murgia, 2014ko irailaren 1a

Kuadrillako lehendakaria
LIERNI ALTUNA UGARTE